

# Noaia!!!

www.noaia.com



Zati organikoa biltzeko  
ontziak banatzen hasi da Udala



Xabier Olano,  
Munduko Txapelketari begira

**ERRAUSKETARIK EZ  
LURRA BASERRIA HERRIA  
BIZIRIK**

## Zer erreko litzateke erraustegian?

|                                  |       |
|----------------------------------|-------|
| Plastikozko ontzi arinak         | %9,52 |
| PET                              | %0,92 |
| PEAD                             | %1,46 |
| PVC                              | %0,02 |
| PEBD                             | %5,44 |
| PP                               | %1,69 |
| PS                               | %0,00 |
| Bestelako Plastikook, ez ontziak | %1,13 |

**Guzti-guztia  
birziklatu  
edo  
berrerabil-  
tzeko  
gaia da!**

Osasun-tekniko batzordea



**413** egun falta dira!!!



elkano kalea 13 HERNANI

Tifnoa. 943 55 33 99  
antenas@telemar.es



**KONTURATZERAKO UDABERRIA HEMEN DUGU!**



**ERRAUSKETARIK EZ  
LURRA BASERRIA HERRIA  
BIZIRIK**

Frutarbolak, marrubiak, sustratu organikoak, larrosondoak...





## Albisteak iruditan !!

# Txileko Ekonomia ministroa, Lanbide Eskolan

**T**xileko Ekonomia ministroa den Hugo Lavados Montes aste honetan Usurbilgo Lanbide Eskolan izan da energia berriztagarrien ikasketak egiten ari diren txiletarrak bisitatzen.

Patxi Vaquerizo zuzendariarekin batera, Hugo Lavados txiletar ministroak ikaske-ta hauek gertutik ezagutzeko aukera izan zuen. Martxotik aurrera, Txileko lanbide ikastetxeetako zuzendari talde batek ere ikastaroa jasoko du.

Ikasturte honetan, Usurbilgo Lanbide Eskola nazioarteko ekimen ugariren lekuko izan da. Egun, aipaturiko txiletarrez gain, Kolonbiako beste ikasle talde bat ari da ikasten.



TXILEKO HAINBAT IKASLE DAUDE LANBIDE ESKOLAN IKASTEN. ERDIAN DIRA PATXI VAQUERIZO ZUZENDARIA ETA HUGO LAVADOS MINISTROA.

## Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieto, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

SANTA AGEDA, IRUDITAN \_\_\_\_\_ **5. OR.**

SOOOFING ANTZEZLANA SUTEGIN \_\_\_\_\_ **11. OR.**

DATORREN ASTEAN, INAUTERI JAIA \_\_\_\_\_ **12. OR.**

ATEZ ATEKOARI BURUZKO ALBISTEAK \_\_\_\_\_ **14. OR.**



Usurbilgo Udaia



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**iz Agirre**  
ELEKTRIZITATEA  
943 36 50 95-609 06 81 11  
izagirrelekttrizitatea@hotmail.com  
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

**ALIPROX**  
Kale Nagusia 10  
☎ 943 361 182  
USURBIL

Andoni Errazkin  
**Xukin**  
igeltseritza orokorra  
Barne eta kanpoko lanak  
**USURBIL**  
☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

**Patri Jatetxea**  
  
K/nagusia 14. ☎ 943 362 725



UNAI AGIRRE

## Aurkakoaren aurkakoak

Hainbat lagunek, urte asko eman ditugu errausketaren aurkako borrokan. Bilerak eta bilerak, kartelak, manifestazioak antolatu, herriaren babesaren bultzadarekin. Etxeko kontuak alboratuta, sistema ezberdinak ikusteko atzerrira bidaiak, gure poltsikoetatik ordainduta-ko isunak, komunikabide gehienek boikota, eta abar luze bat izan da gure ibilbidea. Baina zoragarria izan da. Guk eskatutako alternatiba martxan jartzeko bidean da, non eta Usurbilen, Zorionak! Izan ere, kasu gutxi dira herri borondatea onartu, indartu eta aurrera eramaten duten udalak. Aitzindari izango da, Euskal Herriko hainbat udalerrietara zabalduko den zabor bilketa sistema honekin.

ZORIONAK moduagatik. Ez bakarrik zer, baizik eta nola egiten den ere funtsezkoa delako. Eta Usurbilen herriari aukera eman zaio atez ateko bilketaren antolaketan parte hartzeko, noiz, nola, non erabakitzeko, auzoz auzo, egokitutako ordutegietan. Azken finean, ez dira

egon bakarrik herritarren zain, baizik eta herritarrengana joan dira ere.

ZORIONAK sistemagatik. Hainbat esperientzian ikusitakoaren arabera, materia organikoa ere 5. edukiontzian bilduta, %30 inguru birziklatzera iristen dira, atez atekoarekin berriz, %80tik gora ere. Datuak, datu.

Harritura jaso dut Atez Atekoaren Aurkako Plataformak izan duen oihartzuna hainbat komunikabidetan: argi dago erraustegi-zaleak pozez hartu dituztela haien eskutik. Baina entzuna dut ere atez atekoaren aurkako plataformako kideak ez direla posizionatzen erraustegiarekin, "gai horrek gainezka egiten digu, gai hori Gipuzkoako mankomunitateen baitan dago, eta Foru Aldundiaren baitan, eta ez soilik Usurbilgo udaletxearen edo herritarren baitan". Baina ez al zen gu guztiok sortutako zaborra erre nahi zutena? Argi dagoena errausketaren aurkako borrokan planteatzen diren alternatibek aurka daudenak, alternatiba erraustegia dutela. Horra hor.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Píñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

## "Demokrazia orain" lemapean Bilbon egingo den manifestaziora joateko autobusa antolatu da

Legez kanpo utzitako alderdi eta elkarteetako ehunen bat lagunek larunbat honetarako, otsailak 14, manifestazio nazionala antolatu dute Bilbon. "Demokrazia orain" izango da manifestazioko leloa eta 17:30ean abiatuko da Bilboko Aita Donostiatic.

Usurbildik autobusa antolatu da. Goiko errotondatik aterako da, larunbat honetan arratsaldeko 15:30ean. Bilbora joan nahi duten guztiak Txiriboga tabernan jarri den zerrendan eman dezakete izena. Apuntatzeko azken eguna, otsailaren 13a izango da.

## Aralarren ekitaldi politikoa Sutegin

Asteburu honetan hasiko da Aeusko Legebiltzarrerako hauteskunde kanpaina. Honen harira, Aralar alderdiak ekitaldi politikoa antolatu du, datorren asteazkenean, otsailak 18, arratsaldeko 19:00etan Sutegin. Aintzane Ezenarro, Jon Abril eta Oxel Erostarbe izango dira hizlariak.

**Otar-Goxo**  
Elkargak

Zubiaurrenea, nº2  
☎ 943 36 55 81  
20170 Usurbil

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13

Ojandegia - Gozotegia

**LABE-GOXO**

**www.noaua.com**  
USURBILGO ATARIA

# Usadio zaharrei eutsiz

Otsailaren 4an, Bota Punttuba bertso eskolak antolaturik, 20 bat lagun irten ziren Santa Ageda eskean. Urtero bezala, Santa Ageda bezpera

oroituz eta usadio zaharrak mantenduz, kalez kale nahiz sagardotegiz sagardotegi ibili ziren koplakantari. Bidean, Zubietan kantuan atera zirenekin bat

egin zuten bertso eskolakoek.

Udarregiko ikasleak ere kantuan ibili ziren, baina bazkalostean. Kalejira frontoian amaitu zuten.



UDARREGIKO IKASLEAK ETA BOTA PUNTTUBAKO KIDEAK, SANTA AGEDA BEZPERAN KANTUAN. ESKUBITARA, MANU MUÑOZ EK  
SANTA AGEDA EGUNEZ OSATU ZEN ORTZADARRA IRUDIKATU ZUEN (KOLORETAN, NOAUA.COM WEBGUNEAN IKUSGAI).

## Kultura, Kirola eta Gizarte Ongizateko dirulaguntzak eskatzeko garaia da

Aurten lehendabiziko aldiz, kulturako, kirolako eta gizarte ongizateko dirulaguntzak eskatzeko deialdi bateratua egin du Udalak. Kultura eta Gizarteko dirulaguntza eskaeren oinarriak otsailaren 6an argitaratu ziren GAO aldizkari ofizialean. Kirolakoak, otsailaren 9an. Kasu guztietan, GAO argitaratzen den egunetik hasita 20 eguneko izango da eskaera egiteko epea.

Udalaren nahia dirulaguntza guztiak ahalik eta azkarren banatzea da.

Aurten 3.000 eurotik beherako laguntzak eskatzeko, elkarteak ez du erregistratuta egon behar. Iaz muga hori 2.000 eurotan zegoen. Bestalde, taldeek ez ezik norbanakoek ere eska ditzakete dirulaguntzak, herriarentzat

onuragarriak diren proiektuak burutu nahi badituzte.

### Kontuan hartu beharrekoak

Eskabideak egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Dirulaguntza eskaera beteta.
  - Ekintzen deskribapen fitxa (kultura-laguntzak eskatzeko bakarrik).
  - Nortasun Agiriaren fotokopia; eskaeria egiten duena taldea bada, taldearen karnetaren fotokopia.
  - Eskaera talde batek egiten badu eta erregistratuta badago, identifikazio fiskalaren kodearen kopia.
  - Gizarte Segurantzaren eta Ogasuneko Betebeharretan egunera egotearen agiria.
- Deialdi hauen xehetasun gehiago helbide honetan daude eskura:  
[www.usurbil.net/udalinformazioa\\_deialdiak.php](http://www.usurbil.net/udalinformazioa_deialdiak.php)

### Udaltzain lanpostua

Jardunbidea: oposaketa lehiaketa.

Ezaugarriak:

- Funtzionario izaera.
- 3.go hizkuntza eskakizuna.
- B gida baimena derrigorrezkoa.

Oinarriak: Gipuzkoako Aldizkari ofizialean 2008ko abenduaren 17an argitaratuak.

Eskaerak aurkezteko epea: otsailak 12, eguerdiko 14:00ak arte.

### Lorazain laguntzailea

Jardunbidea: oposaketa lehiaketa.

Ezaugarriak:

- Funtzionario izaera.
- 1.go hizkuntza eskakizuna.
- B gida baimena derrigorrezkoa.

Oinarriak: Gipuzkoako Aldizkari ofizialean 2008ko abenduaren 17an argitaratuak.

Eskaerak aurkezteko epea: otsailak 12, eguerdiko 14:00ak arte.



# Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea  
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

**LATAILLADE**  **ITURGINTZA**

GASA BERORUNTZA  
MANTENIMENDUA ETA  
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

KALEBERRI

ENEKO HARREGUY

## Begiradak



**H**amaika mila pausu eman behar ditu Aihmak hiru ontzi eskutan, ura izan nahi badu. Eta beste hainbeste urrats, ontzi bete bi eskutan eta bestea buruan, ura izan dezaten nahi badu.

Eskilarak jaitsi ditu Luisek eta ehun metro gorabehera duen okindegian, egunerokoak erosi. Gehiago edo gutxiago, gaur ogia, behintzat, bai.

Etxoletara iritsi eta lehengaietatik abiatu da neskatoa, ingurukoak goseak hil ez eta zeozer jan dezaten. Aurrez kate-lanean bilduriko uzta... xehe-xehe egin eta beste oren batekin nahasteko.

Bihar ere joan beharko duen galdetuz gizona bere buruari, beharrera abiatu da garraio-erregaiaren prezioa madarikatuz. Lehen orain baino gehiago, baina minutu batzuk goizago jaikita ere, beste irtenbiderik izango ez balu bezala.

Urtaroen joan-etorrien poderioz, ez besterik, etxeko tei-latua hondatu zaie. Eta hosto handiko zuhaitzen bila basorako ibilbidea ez da batere xamurra daramatzaten oineta-koekin. Zuhaitzetan gora, aihotza eskuan, babeserako behar dituen teila orlegiak jasotzeko.

Ontzi garbigailua apurtu zaie urbanizazio berrikoei. Igandeko senide bazkarirako, nolabait konponduta behar dutela eta, ia-ia agurtzea ere kobratzen duten mekanikariari hots egin dio sakelekoaz.

Auzolanean eraikia. Beste batzuen beharra duela agerian... gainera, ez duenetik ere eman egin behar, hegazti ttiki jaio berriak bailiran, bost haurren bizitza duenean hipotekatzeko.

Alde handiko bi errealitate, bai distantzian, bai bizimodu-  
duan. Alde handiko bi errealitate, oso urrutira alde egin gabe ere; baina zer desberdina den errealitatea... nondik (eta nora!) begiratzen den!

KALEZAR

ALOÑA PULIDO

## Kalezarren trafikoa



**O**raingoan bi gaiekin natorkizue zuengana. Alde batetik Kalezarreko trafikoaren inguruan hitz egin nahi dizuet eta bestalde, Kalezarreko errepide nagusian dagoen geltokiaren inguruan ere aipamen bat egin nahi nuke.

Trafikoari dagokionez, ez zait batere egokia iruditzen udalak Kalezarren egin duen birmoldaketa. Ugarten gora norantza bat jartzea egokia iruditzen zait, haur eskola hor egonik lehen trafiko gehiegi ibiltzen baitzen. Baina bestalde, behera jaisteko jarri duten desbideratze hori ez da batere segurua, izan ere nekazal kooperatibatik behera jaisterakoan edonor topa baitaiteke gorako norantza. Oraindik ez da istripurik gertatu baina egoera honi aurkitzen ez badiote konponbiderik berehala izango dugu sustoren bat.

Nire ustez, lehenik eta behin egin beharreko aldaketa, nekazal kooperatibatik gorako norantza hori debekatzea da. Gainera hau guztiaz gain, desbideratzea erakusten duen seinalearen ondoan asteburutan beste seinalaren bat ere falta da, Kalezarrerako sarrera itxita dagoela erakutsiko lukeena. Bestela, autoek aurrera jarraitzen dute eta Kalezarrera iritsi orduko buelta eman beharrean aurkitzen baitira.

Kalezarreko errepide nagusian dagoen geltokiari dagokionean berriz, esan nahi nuke hor ere konponbideren baten beharra badagoela, izan ere jende askok erabiltzen du geltoki hori eta arriskua oso handia baita. Hau guztia esanik gustatuko litzaidake norbaitek esandako honen inguruan erreflexio sakon bat egitea eta soluzio bat bilatzea, guztion onerako izango baita.

ZUBIETA

GARAZI ITURRALDE

## Gurekin maite dugun laguna

**N**olako negua daramagun! Urte berria hasi genuen, baina aurreko-koa amaitu genuen bezala hasi ere bai. Eguraldi kaxkarrarekin amaitu genuen eta nik uste dut okerrago hasi garela. Errege egunean euria, erregeak goitik behera blai. Gainera, egun batzuen buruan elurra barra-barra, gogoz egin zuen aspaldiko partez. Danborrada egunean ere euria nagusitu zitzaigun. Ondoren, zikloia iritsi zen. Haizea alde batetik bestera, euria ere berriro neurririk gabe, trumoiak eta hauen atzetik tximistak. Pixka bat baretu zuen, baina ez nahi-koa.

Uste genuen dena bukatu zela egun oso polit batzuk izan genituelako, baina ez. Euria, gure betiko laguna heldu zen, gogo handiz nonbait, inoiz ikusi izan ez bagina bezala. Bere erruz, uholdeak eduki genituen etxe ondoan eta baita batzuen. Nik inoiz ikusi ez nituen irudiak ikusi ahal izan nituen. Nire etxe ondoko presa ez nuen ikusten, eta ez itsu geratu nintzelako, baizik eta urak dena estali zuelako. Pentsa nolako uholdeak! Eta azken aste honetan ere euria, gau eta egun gelditu gabe.

Egia esan zenbat gustatzen zaion euriari gurekin ego-  
tea, zintzoak garelako izango da edo ez...





AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

## Urdaira sagardotegia topagune



**K**onturatu ere egin gabe, sagardo garaiari sartuta gaude bete-betean. Azken urte hauetan bezalaxe aurten ere ziur nago laster bistakoak izango direla kanpotarrez betetako autobusak eta beste herrietako jende andanak gure kaleetan gora eta behera ikusiko ditugula.

Euskal Herriko txoko guztietatik etorriko zaizkigu sagardotegiak duen xarma horretaz disfrutatzen. Lurren bakoitzeko jendearen jarrera desberdina izaten da, nik bi adibide aipatuko dizkizuet. Tuterako edo orohar Nafarroako Erriberako jendearekin elkartzeko bazarete, "Riau-riau" kantatuz edo dantzatuz bukatzeko aukera eduki dezakezue, beti ere gaiteroen laguntzaz. Xiberotarrekin batera baldin bazarete, azkenerako agian akuilua hartu beharko duzue eskutan etxera bidali nahi badituzue behintzat. Hauek sartu orduko kantuan hasten dira eta handik aurrera nahiko kantu eta nahiko dantza izango dituzue.

Baina izenburuan Urdaira aipatzen dut eta hor elkartzeko gara martxoaren zazpian Xiberuko Urdiran dagoen "Bil-Xokua" elkartzeko jendearekin. Herri honetako dantzariak, eta Jean Charles eta Xilope xirulariak ere hortxe izango ditugu. Ziur nago afari goxoa eskainiko digutela Patxi eta Maria Jesus



nagusiek eta beraiekin lan egiten duen talde guztiak.

Afari horretan "Azkorria" gazta eskainiko digute noski. "Azkorria" Zuberoako hainbat baserritarrek eginiko apustu baten emaitza da, kalitateari begiratuz beti ere. Eskertzekoa da Urdairako Patxi Zuberoa bertako baserritarren hauen aldeko apustua egitea. Beraz festa luzatzen uzteko eskaerarekin bukatu dut, bere esku egongo baita jendea lehenago edo berandago etxera bidaltzea.

SANTUENEA

PAKO AGUDO

## Piztu argi "olinpikoa"



**N**egu luze honetan azkenik badator argi izpi txiki bat. Inauteriak noski, ez pentsa eguzkia bisitan etorriko zaigunik. Oraindik oportetan dago eta ez dakit noiz etorriko den Kubatik. Inauteriak ematen digun aukera ez da denon gustukoa.

Ridikulua egitea batzuentzat eta askatasuna beste batzuentzat, baina argi dagoena da oso zaila egiten zaigula jai honetatik aparte geratzea. Gurasoak, ikastola kontuekin, umeak bere ilusioarekin eta gazte koadrilak betiko eztabaidekin. Hori da onena niretzako, berriro ere denak elkartu, ideiak sortu, eztabaidak, zerbeza pare bat, azken finean, sortzen den ilusioa.

Aurten Usurbilen gai zabala eta joko handikoa jarri digute, "Olinpiadak". Desfile edo kalejira antzeko bat ere egingo da aurten batukada eta guzti, egun honetan zehar koadrilen ilusioa lortuz, besteak ere, ikusi ahal izateko aukera aparta. Besterik gabe, piztu argi "olinpikoa" negu ilun honetan eta inauteriaz gozatu.

ATXEGALDE AINARA BORDAGARAI

## Hau negua!

**K**aixo herritarrok! Urte berria estreinatatu dugunetik eguraldia ez dabil oso umoretsu. Elurrak kuku bat egin digu. Ziklogenesi delako haize bolada gogorrek ere gure herria astindu dute eta urtarrila amaitzerako izugarritzko euriteak egin dizkigu. Oria ibaiak ere ezin izan dio eutsi bere bideari.



Honelako negu desatsegina izan eta gero, udaberri on bat izateko zain geratu beharko dugu, eguzkia ikusteko irrika ez baita nolana hiko. Eguzkiak izugarritzko propietate onak ditu, ahaztuak baditugu ere. Umore hobea izaten dugu eta energia positiboz betetzen gara, gure artean argia eta eguna denbora luzeagoan izaten dugu eta. Neguan aldiz, beti gaez goaz lanera, ilunpean. Etxera itzultzeko garaiak ere, eguzki arrastorik ere ez. Hori bai tristura! Ea eguraldi txarrak atsedean pixka bat hartzen duen eta eguzkia lanean hasten den, azkenaldi luzean alfer samar dabil eta.

# Xabier Olano Olarra piraguista, Portugalgo Munduko Txapelketarako bidean

**1** 9 urte, arkitektura ikaslea. Usurbilen bizi baina dagoe-neko Kanadan egona da, piraguismoko mundu mailako proba jokatzeko. Eta ez da burutuko duen azken irteera izango. Aurtengo udan, Portugalera baitoa Euskadiko Selektioarekin kayak surf modalitateko munduko txapelketan parte hartzera. Xabier Olano Olarra, zeresana emango duen kirolari gaztea dugu. Bai horixe.

**NOAUA!** Goiz hasi al zinen piraguismoan?

Xabier Olano Olarra. Duela bost bat urte, neure lehengusu baten bidez. Ikastaro bat egin nuen Donostiako kaian. Hor zegoen taldeko entrenatzailea eta gero hark proposatu zidan bertako taldean sartzea.

## XABIER OLANO OLARRA

“Ibaia nahiago dut, bertan erabiltzen dudana piragua txikiagoa da”

N. Hasi eta berehala, emaitza ezin hobek eskuratu zenituen?

X. O. O. 2007tik aurrera izan zen. Bi modalitate bereiztu behar dira; ibaiko (rodeo deritzona) eta itsasoko (Kayak surf). Rodeoarekin urte hartan Espainiako Kopa bat irabazi nuen. Urte berean, Kanadan Mundiala ospatzen zen eta Espainiako Selektioak bertara joateko hautatu ninduen, rodeo modalitatean. Urte hartan, Kayak surfen hasi nintzen, Euskadiko Selektioarekin. Iaz, Munduko Kopako Finalerako sailkatu nintzen. Aurtengo, Euskadiko Selektioak aukeratu nau Santa Cruzen (Portugal) jokatzeko den Mundialerako. Lortu ditudan pos-



ITSASOAN BAINO, AUKERAN NAHIAGO DU IBAIAN ARITZEA.

tuek eraman naute aipatu txapelketan parte hartzera.

N. Bidaiatzeko aukera ederra izan duzu beraz?

X. O. O. Mundua ezagutzeko, dudana zortea da. Zorteduna naiz leku horietan egon naizelako. Kirolaren ikuspegitik, oso esperientzia ona izan da.

N. Piraguan aritzeko, zer nahiago, itsasoa ala ibaia? Edo biak?

X. O. O. Ibaia nahiago dut, bertan erabiltzen dudana piragua txikiagoa

da eta. Rodeoa nahiago. Itsasoa bestalde, berriagoa naiz, maila hobetzen noan arren.

N. Urak esanahi berezia du zuretzat?

X. O. O. Uraren beste perspektiba bat dut. Kirol jardueraren oinarria da.

N. Etorbizuneko kirolari izendapena ere jaso izan duzu?

X. O. O. Gipuzkoako kirolarien artean egiten da aukeraketa, lortutako tituluen arabera. Lehen urtean

## “Garrantzitsuena igeri egiten jakitea da”

NOAUA! Zuen kirol jardueran ondo moldatzeko beharrezko ezagutza fisikoak zeintzuk direla esango zenuke?

Xabier Olano Olarra. Garrantzitsuena, igeri egiten jakitea litzateke. Eta (hori bezain garrantzitsua seguruenik) urari, olatuei beldurrik ez izatea.

N. Kirol modalitate arriskutsutzat jo daiteke?

X. O. O. Hasieran beldur handia eman dezake, baina gaintzen joan behar duzu. “Piku”an gaudenean, olatua paretetik nola sartzen den ikusita, beldurra ematen du hasieran. Probatu ahala, neurria hartzen, hobetzen zoaz.



Espainiako eta Kanadako txapelketatan lortutako emaitzengatik izan zen. Bitan jaso dut izendapena. Geroz eta erronka handiagoak jartzen dizkizute. Orain halere, ikasketak tarteko, ez dut lehen bezain beste entrenatzen.

### XABIER OLANO OLARRA

“Etxean beti ondo hartu dute eta animatzen naute. Baita lagunek ere”

N. Zaila egiten ari al zaizu ikasketak eta prestaketa saioak biak batera uztartzea?

X. O. O. Batez ere entrenamenduak arratsaldez ditudalako. Eta baita kla-

seak ere. Batzuetan entrenatzera joaten naiz, klaseetara joan ordez. Bestela larunbatetan ere ibiltzen naiz.

N. Zeure adinerako, lortutako emaitzen ostean, ez al da geroz eta zailagoa helburu bat finkatu eta hura lortzea?

X. O. O. Senior mailan nabil orain. Kirolari gehiagorekin elkar bizitzen dut. Dagoen mailarako ez naiz hainbeste prestatzen. Nahiko nuke baina egun ezin dut.

N. Entrenatzeko leku kuttunik ba al duzu?

X. O. O. Donostian, Zurriolan prestatzen gara, baina olatu handiak daudenean, Kontxara joaten gara. Haizearen Orrazia ondoan, “Pikua” deituriko eremua dago. Hor olatu oso politak sartzen dira.



ZURRIOLAN ENTRENATZEN DU XABIER OLANOK, BAITA KONTXAN ETA HAIZEAREN ORRAZIAN ERE.





**MAITEMINDUEN EGUNEAN AFARI BEREZIAK, GURE KONTURA OPARIA !**



·GOSARIAK, PINTXOAK, PLATER KONBINATUAK, BOKATAK...

·EGUNEKO MENUA 10€ (ASTEBURUETAN ERE!!!!)

ogla, edaria eta kafea barne

·PLATER BEREZIAK 19€ (haragiak, arrainak, arrozak...)

·ASTEBURUETAN ERE: KOPAK, COCKTAIL...



**erreserbak: 943 36 91 35 BORDABERRI 5, Usurbil**

## Sagardotegi gida, orain zeure mugikorrean

**S**agardotegi batera joan nahi, baina nora jakin ez edota bat aukeratua izanik telefono zenbakirik ezin aurkitu. Halakoetan, paperean argitaratzen diren gidak lagungarriak izan ohi dira beti, baina halakorik eskura ez duenak, teknologia berriak balia ditzake orain; telefono mugikorra adibidez.

Herrialdeko sagardotegien gida eskuratzeko aplikazio berritzailea prestatu du Gipuzkoako Sagardogile Elkarteak. 58 sagardotegien eta sagardo munduari lotutako informazioa telefono mugikorretarako.

### Gida deskargatzeko moduak

SMS bat bidalita, Bluetooth edo Internet bidez, telefono mugikorra Internetera konektatuta edota zuzene-

an beste telefono mugikor batetik.

Aplikazioa Batura Mobile enpresak prestatu dio Gipuzkoako Sagardogile Elkarteari, eta Eusko Jaurlaritzako ESPRIk diruz lagundu du.

### Oso erraza eskuratzen

Interesdunek aukera desberdinak dituzte sagardotegien gida deskargatzeko. Honakoak:

-SMS bat bidalita TXOTX hitzarekin 5195 zenbakira. Kostua: 0,15 euro+BEZ.

-Bluetooth bidez: doan.

-Mugikor bidez, Interneteko helbide honetan:

<http://mobi.baturamobile.com/txotx>

-Ordenagailu bidez, Internet helbide honetan aplikazioa jaitsi eta bluetooth bidez:

[www.baturamobile.com/clientes/jartxotx.jar](http://www.baturamobile.com/clientes/jartxotx.jar)



IRAGAN ASTEAN EGINDAKO PRENTSAURREKODAN AURKEZTU ZEN GIDA BERRITZAILE HAU.

-Gidako menu nagusian azaltzen den zabaldu aukeraren bidez, lagunei bidal daiteke gida. Kostua: igorlearentzat SMS arrunt baten prezioa, hartzailearentzat operadorearen arabera.

**yba pretxe**

**ORAIN INOIZ BAINO GEHIAGO**

EAI PNV jakin eta egin



# Aste honetan, "SoOoFING" antzezlan

**T**xerriki Antzerki Taldeak badu harrobirik. Leire Iturrioz, Jon Etxabe eta Ander Izeta aktoreek Txerriki Gazte Kuadrilla taldea osatu dute eta larunbat honetan lehen antzezlan eskainiko dute Sutegin: "SoOoFING".

Txerrikirekin hasi ziren lehen antzerki emanaldiak eskaintzen. Baina ohol-tza gainekoa bezain garrantzitsua da atzeko lana. Eta horretan ere, gogotsu dabilta Leire, Jon eta Ander.

## Gidoia ere eurek idatzi dute

Izan ere, "SoOoFING" antzezlanaren gidoia eurek idatzi dute, baita antzerki saioko kartela diseinatu ere.

Ez hori bakarrik. Emanaldi egunean, musika eta argiak ere eurek gobernatuko dituzte. "Esperientzia berri bat da. Seguru zaila izango dela, baina ahalik

eta ondoen egiten saiatuko gara", adierazi zioten NOAUA!ri duela aste batzuk.

Udarregi ikastolako DBH 4. mailako ikasleak Bartzelonara joango dira aurtent, ikasturte amaierako bidaian. Errifak eta kamisetak salgai jartzeaz aparte, larunbat honetako antzerkia antolatu dute.

## Sarrerak, alde aurretik, ikastolan eta Txirristran salgai

NOIZ: Otsailak 14 larunbata, 19:30  
NON: Sutegiko auditorioan.

AKTOREAK: Leire Iturrioz, Jon Etxabe eta Ander Izeta.

SARRERA: Aldez aurretik ikastolan eta Txirristran: 3'50 euro; takilan 5.

NORI ZUZENDUA: 12 urtetik aurrera.

IRAUPENA: 55 min.

ANTOLATZAILEA: DBH 4ko ikasleak, Txerrikiko Gazte Kuadrilla.



ANDER IZETA, LEIRE ITURRIOZ ETA JON ETXABE DIRA LARUNBATEKO ANTZERKIKO AKTOREAK.

Dani Moztu      Aintzane Ezenarro      Mikel Basabe

# eragin eta aldatu

Noiz: Otsailaren 18a, asteazkena  
Ordua: 19:00etan  
Non: SUTEGI kultur etxe  
Auditorioan  
Hizlariak: Aintzane Ezenarro, Oriel Erostarbe eta Jon Abeti

[www.aralar.net](http://www.aralar.net)

← ezkerreko **alternatiba** abertzalea



# Olinpikoak izango dira aurtengo Inauteriak

**P**asa den abuztuko olinpiar jokotako sua ez da itzali. Are gehiago, Usurbilek hartu du Pekinek utzitako lekukoa. Otsailaren 21eko kirolari desfilea horren lekuko. Astebete barrurako antolatua dagoen festa eguneko osagaietako bat da. Inauteri jaia egun osoan ez baita etengo.

Iaz zomorroz bete zen herria. Aurten kirolarien txanda izango da. Olinpiar jokoen eguna ospatuko da otsailaren 21eko inauteri egunean. Arratsaldeko 18:30etik aurrera norik bere arropa originalak kalera atera eta erakutsi ahal izango ditu, antolatua dagoen desfilean. BTK batukada taldekoak izango dituzte bide-lagun.

## Olinpiar afaria

NOAUA!-k antolatutako jaialdiak afa-riarekin jarraituko du. Olarrondo jatetxean aurten. Txartelak 20 euroren truke salgai daude jada, Irrati tabernan.

## Goizean, mozorro festa

Olinpiar jokoak hasi aurretik, mozorro festa antolatua dago goizean. Gai librean,

nahi den itxurarekin atera daiteke, inpro-bisazioan oinarrituta frontoian ospatuko den festara. Gaztetxoei bereziki, baina baita haien lagun, guraso eta gainerakoei parte hartzera gonbidatzen zaie.

Gauerdia txarangak alaituko dituen bi kalejira ere ospatuko dira herriko kaleetan zehar. Lehenengoa bazkalarretik, 13:00ak ingurutik aurrera. Bigarrena arratsaldean. Jai giroak egun osoan etenik izan ez dezan.

## Kontzertu gaua

Afalostean, arropak eta festarako gogoa iraun artean luzatuko da parranda. Gaueko 22:30etik aurrera Askatasuna plazan kontzertu gaua programatua dago, talde hauekin: Barañaingo Arima Sutan, Lasarte-Oriako Gaueko Itzalak eta Leitzako Garraxi berbena taldea. Sarrerak hiru eurotan salgai, egunean bertan.

## Festari gorazarre

Otsailaren 20an inauteri eguneko jaialdia antolatu dute Udarregi ikastolan. Aurtengoan garai honetako ospakizunak bihurtu dira protagonista nagusian. "Aupa Inauteriak!" lemapean, inauteriei



HILAREN 21EKO INAUTERI JAIA  
INDARTSU DATOR AURTENGOAN.

gorazarre egingo baitiete. Lehen Hezkuntzako ikasleek goizeko 10:00etan hasiko duten kalejiraren bidez. Jarraian, baita 11:15etik aurrera, urtero legez Kiroldegian ospatuko duten emanaldi sortarekin ere. HH, LH eta DBH-ko ikasleek parte hartuko dute.

## Eskubaloi kadete taldeak 33-25 irabaztea lortu zuen

**E**uskal Ligakoekin lehiatzeko aukera izango dute hemendik aurrera, Usurbilgo kadete mailako eskubaloi taldekoek, pasa den larunbatean Basaurikoen aurka jokatu zuten norgehiagoka tarte handiz irabazi eta gero, 33-25 azken emaitza. Kirol lehia polita eskaini zuten, eta etxekoan animo oihuru ez zen falta izan.



HARMAILETAN JENDE UGARI BILDU  
ZEN AURREKO LARUNBATEAN.

## Giro ederra kantu afarian



**K**anturako garai aproposa dela Kesan daiteke. Kantu Taldea osatu da herrian, Santa Ageda igaro berri da... Txanpa horri esker izango zen, edo ez. Nafartarrak Taldeak egin zuen deialdiak, behintzat, arra-

kasta handia izan zuen. Zuberoako kantariekin batera, afari bat antolatu zuten aurreko asteburuan Artzabalgo jatetxean. Txartel denak saldu ziren eta giroa ederra izan zen, bereziki, afalostean.

# Amaya Goyaran zinegotzia palestinar errefuxiatuekin egon berri da Ekialde Hurbilean

**E**makume palestinarrek haiei ez uzteko, suntsituko zituztela zioten”. Halako kontakizuna egin digu Amaya Goyaran zinegotzi sozialistak Ekialde Hurbileran egin berri duen bidaiaren inguruan. Duela hilabete, Siriako kanpamendu palestinarretan egon zen eta bertan bizi duten egoera larriaren lekuko izan zen.

Genero Indarkeriaren Aurkako Emakume Artisten Plataformako kidea da bera, eta bilgunetik bi bidaiara antolatu dira azken hilabeteetan. Lehenengoa Gazara abenduaren 21etik 28ra arte. Israelgo kartzeletako emakume palestinarrekin lan egin zuten. Lehen bidaiara amaitzeko zela hasi zen Gazaren aurkako bonbardaketa eta inbasioa. “Israel inbaditzailea maila altuko teknologia militarrekin borrokatzen zen artean, herri inbaditua, Palestina, tiragomekin defendatzen zen”, adierazi du zinegotziak. Ondorioak bi aldeetan agerikoak eta oso desberdinak dira, komunikabideek azken asteotan ezagutarazi duten moduan.

Bigarren bidaiara Goyaran bera joan zen, aipatu bezala, Siriako palestinar errefuxiatu gunera. Hangoei elkartasuna adierazi eta guztien borondate onarekin bakea posible dela dioen mezua helaraztearekin batera, palestinar talde guztiekin eta haiei laguntzen ari ziren siriarrarekin egotea zen, plataformako kideen asmoa.

## Ordezkarri guztiekin bilduta

Ustez ezinezkoa iruditzen zitzaiona lortu zuten; bertara ailegatu eta talde palestinar guztien ordezkariarekin bilduta. “Ez ziren inoiz batera eseri, eta are gutxiago, ez zituzten inoiz hain adierazpen garrantzitsuak egin. Eta imajinatu ere ezin zitekeena, adierazpen horiek emakume talde bati zuzendutakoak zeuden”, adierazi du Goyaranek.

Alor desberdinetako ordezkariarekin izan zuten beste bilkura batean, galdeztzen omen zieten, “zergatik zegoen



SIRIAN IZAN DA AMAYA GOYARAN, BERTAKO PALESTINAR ERREFUXIATUEKIN. EZKERRIK HASITA BIGARRENA DA USURBILGO ZINEGOTZIA.

mundua hain geldi, Israelen izugarrikerien aurrean”. Hitzordu horietan guztietan hainbat lekukotza ezagutu zituzten; 61 urteko palestinar batena adibidez. 60 urte sorterritik kanpo zeramatzala zioen. Goyaranen esanetan, “Israelgo estatua osatzea ahalbidetu zuen Nazio Batuen Erakunde baten ebazpena palestinarrek onartu beharra izan zutela zioen. Aldiz, Israel ebazpenak egunero bete ez arren, inork ez die betetzera behartzen”.

## AMAYA GOYARAN

“Israelen izugarrikerien aurrean, mundua zergatik dagoen hain geldi galdetzen ziguten”

Joera desberdinetako ordezkari politikoa biltzeko aukera izan bazuten, emakumeekin ere antzeko esperientzia bizi izan zuten. Kontrasteak agerian uzten dituen irudia jaso zuten; burua agerian zeramaten laikoak, eta estalita zeramatenak, guztiak elkarrekin bilduta. Batzuen eta besteen arteko desberdintasunak segituan agerian geratu ziren ordea. “Topaketa oso gogorra izan zen hasie-

ran, gurekin hitz egitea asko kostatzen zela, ez zuten feminismoari buruzko hitzaldirik entzun nahi”, oroitzen da zinegotzia. Baina Goyaranekin batera joandako plataformako kideek muga horiek gainditu eta haien konfiantza eskuratu zuten. Horren erakusle, beloa kendu zutela jantzia zeramatenak. Argitu zietenez, palestinar emakumeek ez dute berdintasunean pentsatzeko astirik, beren helburu nagusia, datorkienari aurre egin, bizi iraun eta seme-alabak inork hiltzea saihestea da.

## Udalbatza plenoa, Palestinako emakumeekin bat

**P**alestinarren genozidioa behin betiko amaitzea eta bertako emakumei elkartasuna adieraztea dira, Genero Indarkeriaren Aurkako Emakume Artisten Plataformak aurkeztu eta duela bi aste osoko bilkuran udal ordezkariak aho batez onartu zuten mozioaren oinarri nagusiak.

# “Herri kontsultaren emaitza jakin arte, atez ateko sistema geldiaraztea eskatuko dugu”

## Atez ateko sistemaren aurkako plataformak 550 sinadura bildu ditu

**U**surbildarrek atez atekoa nahi duten edo ez jakiteko, herri kontsulta egitea proposatzen du bilketa sistema berriaren kontra dagoen plataformak. Dagoeneko 550 sinadura bildu dituzte. Aurreko astean kaxkoan eta Artzabal parkean aritu ziren firmak jasotzen. Aste honetan, Santuenea eta Kalezar auzoetan jarriko dituzte sinadurak biltzeko mahaiak.

**NOAUA! Zein da sinadura bilketa honen helburua eta zenbatekoa da behar duzuen kopurua?**

**Pedro Ibarra.** Iazko abenduaren 26an idatzi bat aurkeztu genuen udaletxean, non aipatzen genuen Udal Araudi Organikoak eskaintzen digun eskubidea martxan jarri nahi dugula, erreferenduma eta herri kontsultaz baliatzeko aukera.

Horretarako, 16 urtetik gorako usurbildar kopurua zein den jakitea beharrezkoa zela aipatzen genuen. Herritarrek atez atekoa onartzen duten edo ez ezagutu ahal izateko, herri kontsultarako beharrezko sinadura kopurua zenbatekoa den jakin nahi dugu, baina gaurko egunean ez dugu erantzunik jaso.

### KONTSULTA HELBURU

“Bildutako sinadura denak udaletxean aurkeztuko dituzte datorren astelehenean”

Aurreko astean, otsailaren 6an eta 7an, 550 sinadura bildu genituen bost ordutan –oraindik, herriko beste auzo batzuetan sinadura gehiago biltzea espero dugu–. Sinadura horiekin “Udalari atez ateko bilketa sistemari buruzko herri kontsulta egitea” eskatzen zaio; denontzat hain garrantzitsua den arazo honi buruz usurbildarrok pentsatzen duguna neurtzeko modua, partehartzailer eta demokratikoa den modu bakarra.



PLATAFORMAKO HAINBAT KIDE, ABENDUAN EGIN ZUTEN PRENTSAURREKOAN.

**N. Sinadura eman nahi duten herritarrek, nora jo dezakete?**

**P. I.** Datorren ostegunean, otsailak 12, Santueneko elkarte ondoan sinadura gehiago bilduko ditugu 16:00etatik 18:00etara. Eta ostiralean, otsailak 13, Kalezarren, Eguneko Zentroaren aurrean 16:00etatik 18:00etara.

Gure asmoa da otsailaren 16an sinadura denak udaletxean aurkeztea, eta uste dugu erraz gaindituko dugula gutxieneko %10eko kopuru hori. Era horretan, herri kontsultaren emaitza jakin arte, atez ateko sistema geldiaraztea eskatuko dugu.

**N. Zintzilikagarriek polemika eragin dute hainbat etxebizitzetan. Zein da jaso duzuen iritzia?**

**P. I.** Astelehenean, otsailak 9, idatzi berri bat aurkeztu genion alkateari; lehen galderaren erantzunari jarraituz, zehaztu diezagula lehenbailehen zenbat diren 16 urtetik gorako biztanleak, horren arabera atez atekoari buruzko herri kontsulta exijitu ahal izateko; bien bitartean, atez ateko bilketa egiteko materialaren banaketa geldiarazi dezala, herritarroi material hori biltzera behartzeko inongo araudirik edo oinarririk ez duelako; eta atez atekoa egiteko osatu duen elkarte anoni-

mo berriaren osatzea geldiarazi dezala.

Hala nola, lan horiek burutzeko egingo diren balizko langileen kontratazioak geldiarazi ditzala, horretan dirutza bat utzi nahi dutelako, eta osatua ez dagoen enpresa batek ez duelako kontrataziorik burutzeko konpetentziarik.

Azkenik, ez ditzala zintzilikagarri gehiago jarri, etxebizitza jabeen halabeharrezko baimenik gabe; horrela jarraitzen badu, harena ez den jabegoan kalteak eragiteagatik salatua izan daiteke, hala nola, prebrikazio delituagatik.

### Sinadura emateko aukera Santuenean eta Kalezarren

#### OTSAILAK 12 OSTEGUNA

Santueneko elkarte ondoan, atez atekoaren inguruko herri kontsulta egiteko sinadura bilketa 16:00etatik 18:00etara.

#### OTSAILAK 13 OSTIRALA

Kalezarren, Eguneko Zentroaren aurrean, 16:00etatik 18:00etara.

#### OTSAILAK 16 ASTELEHENA

Sinadura udaletxean aurkeztu.



# Hondakin organikoak biltzeko ontziak banatzen hasi da Udala

**S**utegin ezohiko mugimendua dabil egunotan. Udal liburute-giko erabiltzaileei, atez ateko bilketarako materiala eskuratzera doazen herritarrak gehitu zaizkie. Aginagan hasi zen banaketa, Sutegin hartu dio lekukoa azken egunotan, baina astea amaitzerako Santuenean, Kalezarren edota Artzabalen ere eskuragarri izango da barruan behar beste informazio gordetzen duen ontzi marroi ezaguna. Banaketa lanetaz arduratzen ari diren herritarrek aipatu dutenez, esku bete lan izan dute aste hasieran. Materiala jasotzeko epea otsailaren 14an amaituko da.

Aginagan ekin zioten iragan asteburuan, eta astelehenean Sutegin hartu zion lekukoa. Pixkanaka, hedatuz doa atez ateko bilketa sistema berrirako herritarrek beharrezko izango duten materialaren banaketa; organikoa etxe bakoitzean biltzeko ontzi marroixka, atez atekoa behar bezala egiteko lagungarri suertatuko zaigun informazio gida bat, eta sukaldean jartzeko aproposak izan eta egun bakoitzean etxe atarira zer hondakin zati atera behar dugun gogoraziko digun kartel eta iman bana.

## Larunbata, azken eguna

Sutegira sartu eta eskuin aldera, atez ateko egitasmoari buruzko informazio bulegoan ezohiko mugimendua dabil egunotan. Herritarrak bertara gerturatu orduko, banaketa lanen arduradunekin egingo dute topo. Aste hasieran, atsedean hartzeko asti handirik gabe zebiltzan. Ontzi marroixkak prestatu, bere bila zetozenei harrera egin...

Kultur etxera sartzen diren herritarrak, ontzi marroixka bat dutela irteten dira. Ohiko irudia izango da datozen egunetan ere. Hau hasi besterik ez baita egin. Larunbat honetan, otsailak 14, amaituko da materiala eskuratzeko epea.



DATOZEN EGUNETAN, ATEZ ATEKO BILKETA SISTEMAN PARTE HARTZEKO MATERIAL BANAKETAK AURRERA JARRAITUKO DU. MATERIALA JASOTZEKO AZKEN EGUNA, OTSAILAREN 14A IZANGO DA.

## Pilak biltzeko ontzi berriak

Material banaketarekin aste honetan ailegatuko dira baita pilak biltzeko ontzi berriak ere. Parte hartze prozesuko bilkurretan aipatu izan zenez, pilen salmenta

postuak bilketarako gune bihurtzea zen Udalaren asmoa.

Hemendik aurrera, herriko hamahiru bat dendatan jarriko diren ontzietan utzi ahal izango ditugu erabilitako pilak.

## Ontzia ez da etxez etxe banatuko, herritarrek jasotzera pasa behar dute

### AGINAGAKO FRONTOIAN:

Otsailak 12, osteguna: 17:00-20:00.

### KAXKOAN, SUTEGIN:

Otsailak 11 asteazkena: 10:00-14:00.

Arratsalde: 16:00-20:00.

Otsailak 14 larunbata: 10:00-14:00.

### SANTUENeko AUZO ELKARTEAN:

Otsailak 11 asteazkena: 17:00-20:00.

Otsailak 14 larunbata: 10:00-14:00.

### KALEZAR, HAUR ESKOLA ONDOAN:

Otsailak 14 larunbata: 10:00-14:00.



ETXEBIZITZA BAKOITZARI BI ONTZI DAGOZKIO.

### ARTZABALEN, LAUKOTEKO ATERPEAN:

Otsailak 14 larunbata: 10:00-14:00.

## Hizkuntza arloko kexuak biltzeko buzoiak jarri dira

Jazoeraren berri eman gabe ezin jakin askotan, zer gertatzen ari den. Ezta hizkuntz arloko kexekin ere, orain arte. Aurrerantzean, Usurbilgo lau gunetan jarriko diren postontziek herritarrek sumatu edo pairatzen dituzten hizkuntz eskubideen arloko urraketen berri eman ahal izango dute. Aste honetan egin da kanpaina honen aurkezpena Urbilen.

Behatokiak eta UEMA-k sinatutako hitzarmenean kokatu behar da, otsailaren 10ean jendaurrean aurkeztu eta jada abian den herritarrei zuzendutako egitasmoa.

NOAUA!-ko egoitzan, udal errejistroan, Sutegin udal liburutegian edo Urbil merkatal gunean kokatuko diren postontzi banatan utz daitezke, hizkuntz eskubide urraketek lotuta edo-nork izan ditzakeen kexak.

### KEXUAK BIDERATZEKO MODUA

“NOAUA!n, udal errejistroan, Sutegin edota Urbil saltokian aurkez litezke kexuak”

Horretarako, aipatu guneetan esku-ragarri egongo den inprimaki bat bete beharko da lehenbizi. Norbere datu pertsonalak idaztearekin batera, herritar bakoitzak zer gertatu den deskribatzeko aukera izango du; urraketa jazo den lekua, unea, gertaera bera. Kexari lotutako dokumentazioa ere aurkez liteke. Presazkoa bada, Behatokira ere deitu liteke.

Zalantzak argitzeko leku bakoitzean beharrezko informazioa emango dion arduradun bat egongo da.

### Erantzuna eta jarraipena

UEMAk buzoietan utzitakoa jasoko du. Kexei espedientea ireki eta nobederik izanez gero, eguneratzen joango dira eta horren guztiaren berri



EGITASMOAREN ERAGILEAK,  
URBIL EN EGIN ZUTEN AURKEZPEN  
EKITALDIAN.

Behatokiari emango zaio.

Bi erakundeek kasuan kasuko gestioak egin eta kexa aurkeztu duenari, egingakoaren inguruko informazioa helaraziko zaio.

Bildutako kexen jarraipena egingo dute. Behatokiak urteroko txostenetan bilduko ditu. UEMArekin batera, aparteko garrantzia izan edota ildo berekoekin, kanpaina bereziak ere antola ditzakete.

## TELP ikastaroan izena emateko garaia

Udalak TELP izeneko ikastaroa antolatu du, euskaraz eroso mintzatzen ikasteko tailerra. Hobeto espresatzeko baliabideak eskainiko dira, ohitura eta esperientzia propioei arreta berezia jarriz.

**Egunak:** 2009ko otsailaren 28an eta martxoaren 7 eta 14an (larunbatak) Artzabalen. Ordua: 10:00-13:30.

**Izen-ematea:** otsailaren 9tik 20ra bitartean euskara@usurbil.net helbidera mezua idatziz edo 943 371 999 telefonora deituz. Lehentasuna usurbildarrek eta Usurbilen lanean ari direnek izango dute. Matrikulazioa hurrenkerari jarraituz onartuko dira matrikulak.

**Matrikularen prezioa:** doan usurbildarrentzat edo Usurbilen lanean ari direnentzat. Gainerakoek 20 euro.

### Eguneko goardiako farmaziak

**Otsailak 12, osteguna**  
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

**Otsailak 13, ostirala**  
Rodriguez, Nagusia 42 atz., Lasarte

**Otsailak 14, larunbata**  
Gil, Nagusia 24, Lasarte  
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil \*

**Otsailak 15, igandea**  
Gil, Nagusia 24, Lasarte

**Otsailak 16, astelehena**  
Gil, Nagusia 24, Lasarte

**Otsailak 17, asteartea**  
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

**Otsailak 18, asteazkena**  
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

**Otsailak 19, osteguna**  
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

**Otsailak 20, ostirala**  
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

**Otsailak 21, larunbata**  
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte  
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil\*

**Otsailak 22, igandea**  
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
*Castilla Farmazia (22:00-09:00),  
Urbietza kalea, 7 Hernani 943 552 941  
\*Usurbilen, soilik eguerdina arte*

## Pilota emaitzak

Egunotan, pilota mailako Udaberri Txapelketa dago jokoan. Nagusien mailan, Xabi Errastik eta Mikel Elolak 22-7 irabazi zioten Aretxabaletari. Paleta gomako 2. mailan, Josu Arruti eta Jon Olaizola Altxatarrakekoak baino gehiago izan ziren. Paleta larruz, Oidui Usabiaga eta Jon Arrutik lan ona egin zuten, 40-19 nagusitu ziren Urrietaren aurka.

Kadeteetan, Egoitz Torregarai-Imanol Rebollok eta Julen Uli-Imanol Zinkunegik ezin irabazi euren partidak. Imanol Esnaolak eta Iker Zinkunegik, ordea, irabazi 22-21 Oiarperen kontra. Jubeniletan, Xabier Santxo nagusitu zen igandean Zizurren.

Nagusien lehen mailan, Enrike Huizi eta Mikel Leundak irabazi zuten Bergararen kontra; Jabier Santxo eta Aitzol Txapartegik ezin Behar Zanarekin.

**TRINKETE TXAPELKETA, FINALAK**  
NAGUSIAK 1. MAILA, BINAKA  
USURBIL 40 – OIARPE 25  
(Enrike Huizi - Mikel Landa)

**JUBENILAK 1. MAILA, BANAKA**  
USURBIL 32 – HERNANI 35  
(Xabier Santxo)

**JUBENILAK BINAKA**  
HERNANI 40 – USURBIL 17  
(Gorka Mendizabal-Josu Ostolaza)

## Agenda !

### Otsailak 14 larunbata

"SoOoFING" antzerkia 19:30ean Sutegin. Sarrera: aldez aurretik TxirriStran eta ikastolako idazkari-tzan salgai; 3,50 euro, takilan 5 euro.

### Otsailak 17 asteartea

Kantu Taldearen entsegua, 19:30-20:30 Udarregi ikastolan.

### Otsailak 21 larunbata

Inauteri Jaia, egun osoan (ikus agenda, 12. orrialdea).

### KzGunea

#### Otsailak 13 ostirala

Sinadura elektronikoa. 11:00-13:00.

#### Otsailak 16 astelehena

Sinadura elektronikoa. 11:00-13:00.

#### Otsailak 17/18

Bat-bateko mezularitza. 11:00-13:00.

*Otsailean KzGunea goizez: 9:00-13:00 (Kale Nagusia 37, 943 361412)*

## Zumarteko Musika Eskolako ikasleak Andoaingo Piano Jaialdian

**A**steburu honetan ospatuko da Andoaingo Piano Jaialdia. Partehartzaileen artean, Zumarte Musika Eskolako 3 ikasle hauek arituko dira: Aizpea Reveriego, Ainhoa Azpiroz eta Maialen Iñarra. Azken asteotan, gogor aritu dira Andoaingo saioa prestatzen. Zorte on eta, batez ere, ondo pasa dezatela.

Andoaingo Piano Jaialdia sail ezberdinetan banatzen da. Bakarleri saileko A mailan (11 urte arte), Aizpea Reveriego Garciak J.S. Bastien egilearen "Carnaval" obra joko du. Larunbat honetan izango da Aizpearen saioa, Andoaingo Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan, goizeko 11:15ean.

Lau eskuetara sailean, C mailan (18 urte arte), Ainhoa Azpiroz Iztueta eta Maialen Iñarra Arregik G.



ZUMARTEKO IKASLEEK GOGO HANDIZ PRESTATU DUTE JAIALDIA.

Holts egilearen "Jupiter" kantua joko dute. Ainhoa eta Maialen, ordea, igandean arituko dira, eguerdiko 12:00etan, baina Bastero Kulturguneko auditorioan.

## Otsailaren 28an, 1956an jaiotakoen kinto afaria Saizarren

**D**atorren otsailaren 28an bilduko dira 1956 urtean jaiotakoak, Saizar sagardotegian egingo duten afarian. Gaueko 21:00etan Saizarren bertan.

Izen emateko epea, otsailaren 26ra artekoa izango da, honako telefono zenbakietan: 695 780 696 edo 639 510 749.

## "Gureak ere badira gazte horiek" erakusketa Udarregin

**E**gunotan Udarregin, lagun-tzarik gabeko haur atzerritarren inguruko erakusketa bisita liteke. Gure gizarteko beste errealitate bat ezagutzeko aukera eskaintzen du "Gureak ere badira ume horiek" izenekoak. Erakusketara joateko azken eguna, otsailaren 16a astelehena.

## Otsailaren 18an, ludotekari buruzko bilera berri bat

**L**ehen Gure Pakea zahar egoitzaren aterpe izandako lokalean, Udalak ludoteka jarri nahi du martxan. Gurasoekin hasi dira harremanetan eta bigarren bilera izango da 18koa, 19:00etan. Aurreko bileran hitz egindakoa zehaztu nahi da eta lehen etorri ez ziren gurasoei partehartzeko gonbitea egin.

Zuen  
publizitatea  
hemen

© 943 360 321  
publizitatea@noaua.com

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
943 370 008

**txirriStra**

KONTSEJUZARRA 13  
943 360 466

pintxoak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak

**TABERNA**



## ETXEBIZITZA

- Bikote batek logela alokatzen dio bakarrik dagoen pertsona bati. Prezioa 280 euro gehi gastuak. 943575788 / 609901734.
- Pisua salgai Usurbilen (Txaramunto; 2 urte). 97 m<sup>2</sup> - erabilgarri. Egongela-sukaldea (35 m<sup>2</sup>), 3 logela, 2 bainugela, balkoia, arropak esekitzeko toki itxia, garajea, trastelekua eta igogailua. Eguzkitsua. 375.000 euro. 616443507.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Baserri bat hartuko genuke errentan bi lagunek. 656 703 814.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituen. Dena berritua eta amueblatua. 45.000.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje bat alokatzen dugu Zubiaurrenea 10ean. Interesatu bazeude: 943 36 58 63.
- Xsara Picasso salgai. 98. urteko eta egoera oso onean. Prezioa 5.000 euro. 610975757 (Paulo).

- Mitsubishi Montero DI-D 3.2 GLS motza salgai. 148000Km, 6 urte. Tel.: 678636965
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajean, ondo zaindua. 622369646.
- Usurbilen lokal bat daukat alokatzeko 350 euro hilean. Komuna dauka. 650938489.
- Komuna duen 75 metro karratuko soto komertziala alokatzen dut Usurbilen. 650943847.
- Garaje bat salgai Kale Nagusian, 200 m<sup>2</sup>. Oso merke. 657 700 408.
- Bost ateko Nissan Micra daukat salgai. Matrikula 4545DNN. 666894283 (Ana).
- Atxegalden 30 metro karratuko lokala alokatzen da (Truke dena zena). 943373481 / 943373414.
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. Interesatuak deitu 658716970 telefonora.
- Etxebeste kalean 44 m<sup>2</sup>-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.
- Galtzaraginan 14 metro karratuko garaje itxi bat daukat salgai. 617972350

## LANPOSTUAK

## Lan-eskaintzak

- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia, 646717676
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Emakumea adineko pertsonak zaintzeko prest, interna moduan. 608 098 941.
- Emakumea orduka plantxan aritzeko prest. 608 835 033.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska eskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta informea ditut. 697737459
- Emakume gazte bat lan bila dabil, orduka

- edota plantxan aritzeko: 630 438 571.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Goizez haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago. 616 376 591.
- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00 edo kontes-tagailuan mezua utzi, 943 36 44 69. Esperientziaduna.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413..

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Pasa den urtarrilaren 29an erloju bat galdu nuen, Erreka Txiki eta Kale Nagusi inguruetan. Aurkitu duenak deitu dezala: 943 371919.
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Interesatu bazeude maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umezantz egokia. 616586851.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberrierkin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220925
- 2. eskuko trikitixa erosiko nuke. 6567652 13.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



**Urte askotarako Inaxi!**  
Famili guztiaren partez muxu handi bat eta egun ederra pasa dezazula San Balentin egunean.



**Zorionak Intza!**  
Urtarrilak 9an zure urtebetetzea izan da eta 9 urte egin dituzu. Zorionak eta muxu potolo bat etxekoen partez!



Gure etxeko gizontxoak 4 urte beteko ditu datorren otsailaren 14an. Ondo-ondo pasa, **zorionak eta muxu handi bat!**

**Oharra:** Merkatu Txikirako mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien apamenak orri honetan ikusi nahi badituzu, deitu bulego orduetan: Telefonoz: 943 360 321.  
E-posta: [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com)



**Zorionak Mañel!** Otsailaren 14an urtebete egingo duzu pottoko. Muxuak ama, aita, amona, aitona eta izeba osaben partez.



**Zorionak Ekhi!**  
Otsailaren 11n bigarren eskua kontatzen hasi zara. Ondo ondo pasa eta muxu handi bat.

**J.ORBEGOZO**  
ITURGINTZA · GASA · BEROKUNTZA  
BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 · 659602789

teilatua eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**  
Obaba kalea 29 · ASTEASU  
943 69 68 52 · 620 800 186

# UDARREGI



**PARTAIDE  
IKASTOLAK**

# IKASTOLA

- 0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua.
- Heziketa euskalduna: euskaraz ikasi eta bizi, eta Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildua dagoena.
- Euskal Curriculumaren garapenaz arduratua.
- Balore eta jarrerren lanketa, heziketaren ardatz gisa.
- Eleanitza: D eredia; ingelesa 4 urtetik aurrera; gaztelera, Lehen Hezkuntzaren 3. mailatik aurrera eta frantsesa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- Orientazio Departamendua: tutoretza eta banakako orientazioa. Orientazioa gurasoentzat.
- Heziketa Behar Bereziak dituztenentzat Laguntza-gela.
- Hizkuntzetarako irakasle espezialistak.
- Informazio eta Komunikazio-Teknologiak: Informatika, Internet eta Ikus-entzuezkoak.
- Garraioa auzo guztietara.
- Jangela: dieta orekatuak eta osatuak.
- Eskolaz kanpoko jarduerak: kirolak, bertsoegintza, dantza.

**HAUR ESKOLA:** 0 - 3 (07/08/09 urtean jaio eta jaioko diren haurrak).

**HAUR HEZKUNTZA:** 3 - 6

**LEHEN HEZKUNTZA:** 6 - 12

**DBH:** 12 - 16

## Matrikulatzeko epea

Otsailaren 2tik 13ra biak barne

**943 374 061**

Haur eskola

Kalezar auzoa 15. USURBIL

**943 361 216**

Udarregi Ikastola

Gernika ibilbidea. USURBIL

[www.udarregi.com](http://www.udarregi.com)

[www.udarregi.mundua.com](http://www.udarregi.mundua.com)





## “OLARRONDOKO GAUAK”

- Ostiral eta larunbatetan apirila azkenerarte, **GAU GIROA**, DJ Izania gaueko 12tik aurrera.
- Helduentzako urtebetetzeak: (tarta aukerarekin)
  - Despedidak (guk antolatzeko aukera)

## MENUA

Eguneroko menua.

OSTIRAL GAUA BARNE

MENUA 16€

edaria, ogia eta  
kafea barne

**Olarrondo Jatetxea**

5 zenbakia. USURBIL

erreserbak: ☎ 943 360 376

[www.olarrondo.com](http://www.olarrondo.com)